

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Suinaga Arrazola

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Soraluzeko Baltegieta kalean jaio zen. Aita Bergarako Paldai baserrikoa zen eta ama, berriz, Elgetako Albitxukoa. Aitak etxean erretako gaztainak saltzen zituen kalean eta tabernetan, eta “Paldaiñekua” sagardotegia ireki zuen etxean. Soraluzen eskolatu zen Felix, baina azkeneko urtea Elgetako eskolan eman zuen, amaren jaiotetxean bizi zela. Mendikute tailerrean hasi zen lanean 13 urterekin, latoizko piezak egiten; Pascual Txurrukarenean jardun zuen gero, torlojuak eta ferrak egiten. Osuna lantegian ere egin zuen lan soldaduska aurretik. Gero motorrak konpontzeko tailerra jarri zuen etxean, Sacia lantegian lan egiten zuen bitartean. Osintxuko Soraluze kooperatibako sortzaileetako bat izan zen, eta bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte. Milagros Egiguren azpeitiarrarekin ezkondu eta seme-alaba bi izan zituzten. Perretxikoak batzen, ortuko lanetan eta fruta-arbolak zaintzen jarduna da.

Zintak

SOR-083

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-11-09
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

SOR-084

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-11-09
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elxepuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Aita maisu handia perretxikoak biltzen

- **Erref:** SOR-084/001
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:05

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Perretxiko-zalea izan da Felix. Aitarengandik datorkio zaletasuna. Perretxikorik ez zegoen egunetan ere, aita ekarri egiten zituen.

Transkripzioa

-Zu perretxiko zalia, ortuzaina eta amorratua zara, ezta?

-Bai, bai, bai. Perretxikutan aitta zana zan ona.

-A bai?

-Gure aitta zanak lehen esan dotsut lana eitten [zuela] Ariasen. Ba orduan denpora haretan haren moduko perretxikutaririk ez euan Plaentxian. Eta ibiltzia gustatzen jakon eta errez ibiltzen zan. Igarra zan eta, iao!, ibilli..., bueno!, hari jarraitzia zan... Bueno, kasua behintzat honek Ariasenian, Arias berak uezabak esaten ei otsan askotan, baten baiño gehixaotan: "Gaur urteizu nahi dozun orduan eta ekarridazuz neri perretxiku batzuek. Ta igual atsaldeko lauretan edo urten eta emon hor goiko buelta, Po-Pol aldetikan hor zera bueltak emon zerian, ekarri, ta haura pagau ta kinzenia, osea, jornala be pagau itten otsan. Bai, detallia zerak, uezabak. Ta gero ekarri harek asko eitten zeban. Hamen anekdotak harenak be badaoz. Bate ez euan egunetan, ezer ez euen egunetan be harek ekarri eitten [zuen]. Hamen jentia, Gilaneko Taberna, badakizu Gilaneko Tabernia zein dan, ezta? Han egoten zien batzuek apustua einda igual. Porke haura sartzen sanian, osea, bajatzen zanian goittikan ba Gilanian txikito bat jo barikan ez..., erakustia ta gustatzen jakon ba beran zeori. Ta "Aber, hi, Paldai, hamen apustua ein juau, aber, ez duala hainbeste ekarri ta baduala ekarri. Benga, etara dakazenak". Ta-ta-ta, etara ta betik. Bai esan zebanak irabazi. Gogorra, gogorra zan perretxikutan.

2. 4 klasetako perretxikoak biltzen

- **Erref:** SOR-084/002
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:28

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

4 klasetako perretxikoak bildu izan dituzte aita eta berak, jakin-jakinekoak bakarrik. Aita batetik bestera ibiltzen zen ziza bila joateko.

3. Ehizan desengainua hartu, eta ziza bila familiarekin

- **Erref:** SOR-084/003
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:07:04

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Ehizara joatea gustuko zuen Felixek, baina desengainua eraman zuen eta utzi egin zuen. Orduan, mendirik mendi hasi zen ibiltzen familiarekin ziza bila.

4. Zizak oparitu ala saldu?

- **Erref:** SOR-084/004
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:07:04. **Bukatu:** 00:08:15

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Zizak etxerako biltzen zituzten, baina baita oparitzeko ere. Behin saltzeko aholkatu zioten eta ordutik hala egiten du.

5. Perretxiko txikiak zaindu behar

- **Erref:** SOR-084/006
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:12:56

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Zizak biltzerakoan, neurria zaindu behar da, ez pisua. Txikiak hartuz gero, ez dira gehiago hazten.

6. Sagastiak kimatzen nola ikasi zuen

- **Erref:** SOR-084/008
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:20:05

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Behin egur batzuk zeuzkan eta haiek erretzeko asmoa zeukan; lankide batek ortura eramatea eskaini zion, egur ona omen zen eta. Ortuko gizon hark, eskerrak emateko, sagarrak kimatzen erakutsi zion.

7. Ondo inausteko jakin beharrekoak

- **Erref:** SOR-084/011

• **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:25:04

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Sagarrak inausteko, jakintsuek ez diote begiratzen ilargiari. Ilargia garrantzitsua da, baina, baratzeko zenbait gaitan: tipulatan, adibidez. Inausketa motei buruz hitz egiten du. Denborarekin, zuhaitzen portaerari buruzko usteak aldatu egin dira.

8. Abereak edukitzeak dakarren lana eta mesedea

- **Erref:** SOR-084/014
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:37:32

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Iritziak

Laburpena:

Gaur egun, baratztea gustatzen zaio, baina abereak edukitzea ez, lan handia eskatzen dutelako. Lehen, ordea, gerra garaian, abereei esker atera ziren aurrera, arrautzak baitziren elikaduraren oinarria.

9. Anaia Afrikan soldadutzan gaixotu

- **Erref:** SOR-084/015
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:37:32. **Bukatu:** 00:39:13

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>Anaia Afrikara joan zen kanoi-fabrian lanean zebilen garaian. Han zegoela, larri gaixotu zen, gurasoek aurrezki guztiak hura sendatzeko gastatu zituzten, eta lau urteren ostean hil egin zen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com